

The E World

Mexikotik itzuli naiz eta ez nago segur oinak arras lurrean dauzkadan oraindik. Josiren [Jose Inazio Basterrretxea] zutabea irakurtzean, iruditu zait aipatzen duen martiztarra naizela Euskal Munduari berriz hurbiltzen saiatzean: arrotzago sentitzen naiz hemen ezen Reforma pasean. Eman dut astea ordu aldaketarik iratzartzen eta lekuan lekuko notiziak onartzen. Egunkaririk ez dut ireki. Doi-doia ikusi dut Arturo Ripsteinen *Un Lugar Sin Limites*, David Lynchen *Mulholland Drive* izugarriaren ondotik. Biek amerikar (in)kontinentean mentalki geratzen lagundu naute.

Ordea, harriturik, jakin dut Iparraldean alderdi politiko berri bat sortu zela eta prentsaurrekoan agertzen ziren Iparretarrak talde ohiko buruzagi jubilatua: hiru zartagailuk agurtu dute bazko gauerdiko ondoa. Gehienetan desira izpirik pizten ere ez duen gure *The E World* zurrunbilotsuan, borroka armatuaren folklorea indarrean dabilela jagoitik argi dago. Jendeak erakartzen ditu eta sinestera uzten, ongi ziblaturiko bortizkeriaz dela euskal gauza aitzinatzen zein euskal arazoari aterabideak aurkitzen. Zergatik hain urrun gaude Nezahualcoyotl eta Chalcotik?

Mexikon ardura harrapatu nau Keta emazte *taxi driver*ak. Bere egunerokoaren kontakizun osoa ene karneta urdinetan gatibatu dut, bidaietan nehoiz ez bezala *escritora* bat naizelako, hala izkiriartzen dut bederen, hotelen harrera geletan betetzekoak diren paperetan, ofizioaren lerroan. Lanbide gogorra du frantses irakaslea zen Ketak, hiru haurrekin hilabete bukaerara justu heltzeko. Ketarekin beraz abiatu naiz Frida Kahloren Coyacaneko etxe urdineraino: tindatzailaren paralitiko aulkia ikusi dut, kafearen egiteko makina, pintura urdina eta Diegoren txapela murrutxatzen



zintzilik. Baina ez ditut artista hauen taula guztiak miretsi DFen greba eguna zelako orduan ISSTE pentsioen erreforma garratzaren salatzeke. Keta, bozak galdu dituen Obregon-en aldekoa da, baina ez zaio gustatzen ehun milaka kideek, Marcela, Hector eta Mardonio barne, Reforma, Benito Juarez eta Zocalo mukurutzen dutenean, hiri osoa blo-

katuz ibilaldi bakarrean: aurreko abenduan, geldotasunak 143 egunez iraun zuen.

Hauteskundeak dira Frantzia. Egia erran, ez dut kanpaina segitu, ez dakit zein diren xedeak, nik inoxenteki betidanik ezkerrentzat bozkatu dudalako; ezkerrekoa eta emaztea den ber hari doala ene ahotsa azpimarrazten dit alabak, analisi politikoa eta pentsu eskasekoa bainintza. Ohartzen naiz Royal andereari jezartzen diotela —*rien ne me sera épargné* dio berak— orokorki emazteei leporatzen zaiena: buru arinkeria, *tailleur crêmez* bezitza eta errealtate ekonomikoaren ezezagutza. Bost urteko Royalen gobernutik landa, Frantziako moltsak agor daitezkeela hautematen da, hau da enpresa publikoen presidenteen *urrezko parakidas* horien ordaintzeko Aderia-tsuaz beste, ama maitatzailearen premia dukegu alta denek orok *The F World* bihotzean.

Mugak zeharkatzea daukagu izpirituan, lurtarrek eta Josiren martiztarrek ere. Arbasoek bidea erakutsi ziguten eta sukaldeetarik jalgitzen garen bezain laster xendetarik gabiltza, Chicagon *de mojudas* klandestino gisa diharduten Meridako bi ahizpa mayatarren abenturak aditzean edo behingoz bakarrik *The L World* behatzean. Danak arrazoi du: bizitzaren zatirik handiena, gure baitako hoberena gordetzen gigitzen dugu eta bata-bestearentzat martiztarrek bihurtzen gara. *Banhof* erran du *Heinean* Heinrichek eta grenze-fronterra bertan dugu.

Jump (bis). ■

Mexikon ardura harrapatu nau Keta emazte *taxi driver*ak. Bere egunerokoaren kontakizun osoa ene karneta urdinetan gatibatu dut, bidaietan nehoiz ez bezala *escritora* bat naizelako, hala izkiriartzen dut bederen, hotelen harrera geletan betetzekoak diren paperetan, ofizioaren lerroan